

8 / 08

Irizpena

EUSKADIKO LAN
AUTONOMOAREN ELKARTEEN
ERREGISTRO BEREZIA SORTU
ETA ARAUTU DUEN

Dekretuaren Proiektuari
buruzkoa

Bilbo, 2008ko uztailak 29



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía, 35-1. solairua
48009 Bilbo
www.cesvasco.es

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Grafika, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-354-08

Irizpena

I

AURREKARIAK

2008ko maiatzaren 9an, Justizia, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren idazkia aurkeztu zen, *Euskadiko Lan Autonomoaren Elkartearen Erregistro Berezia sortu eta arautu duen Dekretuaren Proiektuari* buruzko txostena eskatuz, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

Dekretuaren proiektua da, eta Euskal Autonomia Erkidegoak Autonomia Estatutuaren 12. artikulua araberan lan-arloan egikari ditzakeen eskumen exekutiboen bidez, bai eta lan-legeria betearazteko eskumena egikaritzeko beharrezkoak diren zerbitzuak atondu eta antolatzeko autoantolakuntza-ahalmenaren bidez ere, autonomia-erkidegoek EAEn Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 20.3 artikuluan eta Seigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako Lan Autonomoaren Elkartearen Erregistro Berezia sortu eta hori arautuko dute.

Maiatzaren 12an agiri hori Batzordeko oso bilkuran parte hartutako kide guztien artean banatu zen, horiek gai horren inguruan proposamenak eta iritzia eman ahal izateko. Ondorenez, hori guztia Lan Batzorde egokiari jakinarazi zitzaion, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Funtzionamendu Erregelamenduan ezarritakoari helduta.

2008ko ekainaren 5ean, lan-bileran Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, Irizpenaren Aurreproiektuari buruzko proposamena eztabaidatzeko, eta 2008ko uztailaren 29an Irizpen Proiektua Euskadiko EGBren osoko bilkurari helarazten da eta aho batez onartzen da.

II EDUKIA

Kontsultatu beharreko Dekretuaren Irizpenaren testuan Hitzaurrea, lau artikulua, Xedapen gehigarri bat, eta bi Azken Xedapen ageri dira.

Hitzaurrea

Dekretuaren Proiektuaren hitzaurrean, proiektu horren xede den Erregistroaren sorrera eta arauketa barnean hartzen dituen lege-edukia deskribatzen da. Hain zuzen ere, eduki hori Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 32/2006 Legearen 19 eta 20. artikuluetan azaltzen da, eta horietan langile autonomoak afiliatu eta lanbide-elkarte zehatzak sortu, horiek erregistro berezi eta sindikatu- edo enpresa-erakundeetatik edo bestelako izaera duten erakundeetatik bereizitakoan jaso eta Lan Autonomoaren Elkartea Berezien Erregistroak autonomia-erkidegoetan sortzeko eskubideak ezarri dira. Dekretuaren xedea langile autonomoak elkartzeko duten eskubidea benetan eta modu eraginkorrean egikartzeko bidea ezartzea da. Helburu horretarako, euskal administrazio nagusiak eskumenak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak atondu eta antolatzeko autoantolakuntza-ahalmena egikaritzen da.

Xedapena edukia

- 1. artikulua** Dekretuaren xedea zehaztu da, Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko 20/2007 Legearen 20.3 artikulua ezarritako Euskadiko Lan Autonomoaren Elkartearen Erregistro Berezia sortzeari buruzkoa, administrazio- eta unitate-izaerarekin, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzari atxikitakoa.
- 2. artikulua** Erregistroaren egindako inskripzioaren izaera aipatzen da, eraketaren eta elkartearen Estatutuen publizitate ondoretarako.
- 3. artikulua** ezarritakoaren arabera, Erregistroaren jarduketa eta eginkizunak elkarre-erlazioak arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren eta Elkartearen Nazioarteko Erregistroaren eta elkartearen gainerako erregistroekin dituen harremanen Erregelamendua onetsi duen azaroaren 28ko 1497/2003 Errege Dekretuaren arabera garatuko dira. Halaber, 2. zenbakian, Erregistroaren eginkizunen artean, ondoko hauek aipatzen dira: inskripzio-eskabideak jaso eta horien izapideak egiteko organoa izatea; inskripzio-eskabideak legerian ezarritako betekizunetara egokitzen direla egiaztatzea; inskripzioaren elkarre-erlazioak aurretik daudenen berdinak ez direla edo horiekin nahasten ez direla baieztatzea; inskripzio-eskabideen izapidetza-prozesuan beharrezkoak diren txostenak eskatzea; inskripzio-eskabideak ebaztea. Amaitzeko, espedienteen izapideak egin eta ebazteko organo eskuduna Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaria izango da.

4. artikuluaren ariora, elkarteak Erabilera Publikokotzat jotzeko aukera azaltzen da. Hala ere, horretan atzera egin daiteke Euskadiko Elkarteen 7/2007 Legearen Erregelamenduan ezarritako prozeduraren bitartez.

Horrez gain, Erabilera Publikoaren aintzatespena edo atzera-egitea EHAAAn argitaratu ondoren, Erabilera Publikoko Elkarteen Babesletzak erregistrora Dekretuaren kopia konpultsatua bidaliko du.

Elkartea Erabilera Publikotzat jotzeko aintzatespenaren edo atzera-egitearen ondorioz, inskripzio-idazpena sortuko da. Inskripzio-idazpen horretan, Erabilera Publikoa adierazi edo horretan atzera egiteko Dekretuaren identifikazioa adieraziko da, bai eta hori EHAAAn argitaratutako data ere.

Xedapen gehigarri bakarean Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezarri duen Dekretua aldatu da, batik bat, 17. artikulua (z bis) atal gisa, Lan Autonomoarekin zerikusia duten eskumen- eta erakunde-eginkizunen egikaritzea atxikitzeko, bai eta Euskadiko Lan Autonomoaren Elkartearen Erregistro Berezia eramateko ere.

Lehenengo Azken Xedapenean Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuari Dekretua betetzeko beharrezkoak diren xedapenak hartzeko ahalmena ematen dio.

Bigarren Azken Xedapenean ezarritakoaren ariora, Dekretua hori EHAAAn argitaratu eta biharamunean indarrean jarriko da.

III OHAR OROKORRAK

Lan autonomoaren kontzeptuaren mende gure errealitate sozioekonomikoan azken hamarkadetan sortutako osagaien heterogeneotasuna eta hori arautzeko beharri- arauketa-ekimen ezberdinen xede nagusiak izan dira. Azken batean, arestian Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen mende arauketa sistematikoa eta unitatekoa sortu da. Hain zuzen ere, bertan langile autonomoen araubide juridikoa eta gizarte-babesa jasotzen dira.

Lege honetan langile autonomoari aintzatzetsitako eskubide kolektiboen artean, bere aukerako sindikatura edo enpresa-elkartera afiliatzeko eskubideaz gain, langile autonomoen lanbide-elkarte zehatzetara afiliatu eta halakoak sortzeko eskubidea ere jasotzen da, elkarte-eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta 20/2007 Legean ezarritako berezitasunak kontuan izanda. Bada, elkarte horien helburua langile autonomoen lanbide-interesak defendatzea da, eginkizun osagarriez gain.

Halaber, 20/2007 Legean, orobat, elkarteak inskribatuta eta estatutuak Erregistro ofizial zehatzean eta sindikatu- edo enpresa-erakundeetatik edo bestelako izaera dutenetatik bereizitakoan gordailututa ageri behar direla baieztatzen da. Horrez gain, Legearen Seigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, autonomia-erkidegoek euren lurralde-eremuan Lan Autonomoaren Elkarteen Erregistro Berezia sortzeko eskumena izango dute.

Testuinguru horretan, Euskadiko EGBk modu positiboan baloratu du Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak 20/2007 Legearen arabera ezarritako Lan Autonomoaren Elkarteen Erregistro Berezia sortzeko hartutako ekimena. Hori dela eta, bertan ezarritakoa behar bezala beteko da, baita legerian lan autonomoari begira aitortutako lanbide-elkarte zehatzak sortzeko eskubidearen birtualitate erabilgarria ere.

Bestalde, Hitzaurrearen amaieran ikus dezakegun bezala, hots, Dekretuaren Proiektua egin eta horren izapideak egiteko prozesuan esku hartzen duten organoak aipatzen diren zatian, ez dela inolako adierazpenik egiten EGBri buruz, eta horrek aginduz esku hartzen du Sorrera eta Arauketa Legearen 3.1.b) artikulua onduz. Horrenbestez, Dekretuaren Proiektuaren Hitzaurrearen azken paragrafoan "Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea entzunda" adierazpena jasotzeko beharrezana antzeman dugu, eta azkenean esaldia modu honetan geratu da:

*Hori dela bide, Aholkularitza Batzorde Juridikoak irizpena eman aurretik, **Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea entzunda**, eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak egindako bilera jorrotutako eztabaidaren eta hartutako onepenen ostean...*

IV ONDORIOAK

Euskadiko EGBren ustez kontsultaren xede den Dekretuaren Proiektuaren izapidez egokia izan da, Irizpen honetan egindako oharrekin batera.

Bilbon, 2008ko uztailaren 29n

Lehendakariaren ikus onetsia
Antxon Lafont Mendizabal

Idazkari nagusia
Javier Muñecas Herreras

Oharra: Arreta berezia jarri da Dekretuaren Proiektuaren (Hitzaurrera eta 3. artikulua) testuan egindako transkripzioan gertatutako okarren inguruan.